



ABALTZISKETA

## ZABOR-ONTZIEN LEKU ALDAKETA

Ondorengo egun hauetako batean, Abaltzisketako pilotaleku atzeko aparkalekuan zeuden zabor-ontzi guztiak lekuz aldatuko dira eta kokaleku berria, Andresene azpikaldeko eremua izango da.

Leku aldaketa ondoren, bi zabor-ontzi berde ordez, bakarra jarriko da.

Hau dela eta, zaborra bereiztu eta berziklatu beharrean aurkitzen gara. Plastikoa, beira, papera eta kartoia, bakoitza bere kontenedorera bota behar dira. **MESEDEZ BEREIZTU DAITEKEENA EZ BOTA KONTENEDORE BERDERA**, bakarrik bereiztu eta berzikla ezin daitekeena.

Beste aldetik, udazkenean, Tolosaldeko Mankomunitateak, hondakin bilketako sistema berria ezarriko du Tolosaldeko herrietan eta honen berri emango dizuegu ezartzen denean.

Edozein zalantza argitzeko deitu Udaletxera eta ahal den neurrian informatuko zaituztegu.

Besterik gabe, aurrez eskerrikasko ahalegin guztiagatik.

Abaltzisketan, 2018ko abuztuaren 8an.

Alkatea